

Izenburua	<i>Tribuaren berbak</i>
Formatua	Sekuentzia didaktikoak (sorta)
Egilea	Kike Amonarriz, Iñaki Retegi, Josune Zabala eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa.
Nori zuzendua	DBHko ikasleei
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Euskarari eta Euskal Herriko eleaniztasunari buruzko oinarrizko ezagutza soziolinguistikoa ematea. • Ikaslearen bizi inguruneke errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoaz interpretatzea eta hizkuntza aniztasunaren inguruko balioak sustatzea. • Beste ikasleekin elkar eraginez, hausnartuz eta eztabaidatuz, ahozko ekoizpena lantzea eta ikusentzunezko baliabideak eta teknologia berriek eskaintzen duten informazioa erabiltzea. • Euskararen bilakaera historikoa ezagutaraztea, gaur egungo egoera soziolinguistikoa eta norberaren eta inguruko errealitate soziolinguistikoa interpretatzeko bideak eskaintzea. • Euskararen aldaerak, euskalkiak, ondare linguistikoa, eta hizkuntzaren bilakaera ezagutzea eta prestigiatzea, ikasleen autoestima linguistikoa eta hobekuntzarako jarrera sustatzea. • Hizkuntzaren bilakaeran eta egoeran eragiten duten faktore garrantzitsuenak ezagutzea eta hizkuntzaren normalizazioaren aldeko erakunde eta ekimen nagusiak ezagutaraztea. • Maila indibidualean ikasle bakoitzak euskararen alde egin dezakeena azaldu eta erabileraren aldeko jarrerak eta praktikak bultzatzea. • Edukien ebaluaziorako irizpideak zehaztea.
Metodologia	Metodologia kooperatiboa: ikasten ari diren berdinaren arteko interakzioa garrantzitsua da benetako ideien elkartrukea eta eztabaida sustatzeko; hau da, adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzeko. Beraz, lan eta esfortzu indibidualaz gain, talde lana funtsezkoa da, gizabanakoak besteekin

	<p>elkarri eragiten ikasten baitu.</p> <p>Ikasketa kooperatiboa honako printzipioetan oinarritzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkardependentzia positiboa. • Aurrez aurreko interakzioa. • Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa. • Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.
Denboralizazioa	Sekuentzia bakoitzaren iraupena 8 saiotakoa da
Eranskinak	<p>Materiala eskuragarri:</p> <p>https://tribuarenberbak.asmoz.org/</p>
Oharrak	<ul style="list-style-type: none"> • Sekuentzia hauen lanketa egiteko beharrezkoa den material guztia sarean eskuragarri dago: sekuentziak, lan-koadernoak eta irakaslearentzako gida didaktikoak. • <i>Tribuaren Berbak</i> 10 sekuentzia biltzen dituen sekuentzia didaktiko sorta da. Irakasleak erabaki dezake material horietako bakarra, batzuk edo denak erabiltzea. Sortzaileen aldetik, egokia ikusiko lukete DBHko maila bakoitzean 3 sekuentzia erabiltzea (ebaluazio bakoitzeko bat, adibidez).